



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2019ko apirilak 4
Ordua: 09:05-10:00
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Alazne Lafragua Ureta
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- 1/2019 zenbakidun kredituaren judizioz kanpoko aitortpena onartzea.

Alkateak irizpena irakurri du.

"HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

IKUSIRIK 2019ko otsailaren 13an Idazkaritzak 2018ko ekitaldiko hurrengo kreditua judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: Artea Etnografia Elkarte

Erregistro-data: 2019ko urtarrilak 23, 223 zenbakiduna.

Zenbatekoa 9.497,00 euro

Gaia: Artea Elkarteak sarreren diruarekin egindako ordainketak: 9.497,00

Artziniegako Udalak, 2018ko ekainaren 7ko Osoko Bilkurak adostuta, soilik 2018ko ekitaldirako, aldaketa barneratzen duen 2004ko urriaren 21ean sinatutako hitzarmena luzatzea onartu zuen, Artea Elkarteari 2018ko ekitaldiari dagozkion sarreren diru-bilketaren ondoriozko dirua erabiltzea ahalbidetzeko.

"Artea Etnografia Elkartearekin Hitzarmena (eguneroko irekiera)" izeneko 333.480.000 zenbakidun aurrekontu-aplikazioan 29.000,00 euroko aurrekontua finkatu zen eta 2018ko apirilaren 13an ordaindu zen zenbateko hori.

223 zenbakiarekin erregistratutako dokumentu bidez 2019ko urtarrilaren 23an Artea Etnografia Elkarteak 2018an zehar Museoa bisitatetik eratorritako sarreren diru-bilketaren ondoriozko likidazioa aurkeztu zuen.



Sarreraren ondoriozko diru-sarrerak urtarriletik abendura. 2018: 14.323,50
Sarreraren diruarekin egindako ordainketak: 9.497,00
Ordainketa eskudirutan Artziniegako Udaleko kontuan. 4.826,46

Kontuan izanik 2018ko abenduaren 31n "Artea Etnografia Elkartearekin Hitzarmena (eguneroko irekiera)" izeneko 333.480.000 aurrekontu-aplikazioan ez dagoela lotura juridikoari helduz inolako saldirik 9.497,00 euroko zenbateko hori zenbatzeko, eta 2019ko urtarrilaren 23an ez dagoela egiterik aurrekontua aldatzeko espedienterik 2018ko ekitaldiari dagokionez, Udalbatzari planteatzen zaio kredituaren judizioz kanpoko aitorpenerako espediente bat izapidetzeko.

KONTUAN HARTUZ 2019ko otsailaren 13an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorpen hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2019ko martxoaren 27an Hiritarren Informazio Batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea har dezala hurrengo

AKORDIOA

LEHENA. Hurrengo kredituaren judizioz kanpoko aitorpena onartzea, 2018. ekitaldiari dagokiona:

Hirugarrena: Artea Etnografia Elkartea

Erregistro-data: 2019ko urtarrilak 23, 223 zenbakiduna.

Zenbatekoa 9.497,00 euro

Gaia: Artea Elkarteari sarreraren diruarekin egindako ordainketak: 9.497,00

Artziniegako Udalak, 2018ko ekainaren 7ko Osoko Bilkurak adostuta, soilik 2018ko ekitaldirako, aldaketa barneratzen duen 2004ko urriaren 21ean sinatutako hitzarmena luzatzea onartu zuen, Artea Elkarteari 2018ko ekitaldiari dagozkion sarreraren diru-bilketaren ondoriozko dirua erabiltzea ahalbidetzeko.

"Artea Etnografia Elkartearekin Hitzarmena (eguneroko irekiera)" izeneko 333.480.000 zenbakidun aurrekontu-aplikazioan 29.000,00 euroko aurrekontua finkatu zen eta 2018ko apirilaren 13an ordaindu zen zenbateko hori.

223 zenbakiarekin erregistratutako dokumentu bidez 2019ko urtarrilaren 23an Artea Etnografia Elkarteari 2018an zehar Museoa bisitatetik eratorritako sarreraren diru-bilketaren ondoriozko likidazioa aurkeztu zuen.

Sarreraren ondoriozko diru-sarrerak urtarriletik abendura. 2018: 14.323,50

Sarreraren diruarekin egindako ordainketak: 9.497,00

Ordainketa eskudirutan Artziniegako Udaleko kontuan. 4.826,46

Kontuan izanik 2018ko abenduaren 31n "Artea Etnografia Elkartearekin Hitzarmena (eguneroko irekiera)" izeneko 333.480.000 aurrekontu-aplikazioan ez dagoela lotura juridikoari helduz inolako saldirik 9.497,00 euroko zenbateko hori zenbatzeko, eta 2019ko urtarrilaren 23an ez dagoela egiterik aurrekontua aldatzeko espedienterik 2018ko ekitaldiari dagokionez,



Udalbatzari planteatzen zaio kredituaren judizioz kanpoko aitopenerako espediente bat izapidetzeko.

BIGARRENA. 2019ko ekitaldiari dagokion Aurrekontuaren kontura dagokion kreditua aplikatzea, gastuari aurre egite aldera, kontuan izanik 2018tik luzatutako 2019ko aurrekontuan ez dagoela aurrekontu-kontsignazio nahikoa, lotura juridikoari helduz, sortu berria den "2018ko ekainaren 7ko Udalbatzaren akordiotik eratorritako 2018ko diru-laguntza areagotzea" izeneko 333.480.003 zenbakidun aurrekontu-aplikazioan gastuari aurre egiteko. Era berean, 2019ko ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektuan "2018ko ekainaren 7ko Udalbatzaren akordiotik eratorritako 2018ko diru-laguntza areagotzea" izeneko 333.480.003 zenbakidun aurrekontu-aplikazioan, 9.497,00 euroko kopurua esleituko da"

Alkatea: akordio hau iaz Artearekin onartutako hitzarmenaren aldaketari dagokion kontabilitateko erregularizazioa da. Modu horretan, sarrerren diruaren zati hori, lehen Udalari gaineratzen zizaiona, elkarrearen eskuetan geratu zen gidien zerbitzuaren ondoriozko kostuaren igoerari aurre egiteko. Zerbait esan nahi duzue?

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2.- 2019ko aurrekontua onartzea.

Ascension Hormazabal Meabek txostena irakurri du.

"AKORDIO-PROIEKTUA"

Ogasun Batzorde Informatzaileek 2019ko urtarrilaren 23an, 2019ko martxoaren 21ean eta 2019ko apirilaren 1ean egindako saioetan, 2019. urterako Aurrekontuko espedientea aztertu ostean, Udalbatzari akordio hau har dezala proposatu diote:

1.- Udal honek 2019. ekitaldirako taxutu duen Aurrekontu Orokorra hasiera batean onartzea. Aurrekontuaren zenbatekoa BI MILIOI BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA ETA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKOA (2.275.891,78 €) da, Sarrerren Egoeran nahiz Gastuen Egoeran. Honatx aurrekontuaren laburpena Kapituluka:

GASTUEN EGOERA

	Kapitulua	Zenbatekoa
I	Pertsonal-gastuak	778.507,49
II	Ondasun Arrunten Erosketa eta Zerbitzuak	627.238,33
III	Finantza-gastuak	0,00
IV	Transferentzia Arruntak	372.659,39
V	Kreditu Orokorra eta bestelako ustekabeak	9.861,72



VI	Inbertsio Errealak	481.624,85
VIII	Finantza-aktiboak	6.000,00
IX	Finantza-pasiboak	0,00
	Gastuen egoera guztira	2.275.891,78

DIRU-SARREREN EGOERA

	Kapitulua	Zenbatekoa
I	Zuzeneko Zergak	469.600,00
II	Zeharkako Zergak	31.250,00
III	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	275.928,00
IV	Transferentzia Arruntak	1.141.676,07
V	Ondare-sarrerak	28.348,04
VI	Inbertsio Errealen Besterentzeak	0,00
VII	Kapitalaren Transferentziak	323.089,67
VIII	Finantza-aktiboak	6.000,00
	Sarrerren egoera guztira	2.275.891,78

2.- Aurrekontuaren espedientean agertzen den Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araua onartzea.

3.- Erakunde honen lanpostuen zerrenda onartzea, aipatutako espedientean agertzen dena.

4.- Espediente hori jendaurrera eramatea erreklamazioak egin ahal izateko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako forma eta epeak betez.

5.- Erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea.

6.- Erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean.

7.- Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea.

8.- Behin betiko akordioarekin batera, Erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.- Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira".

Alkatea: beno, aurrekontuaren ildo nagusiak azaletik aipatu nahi nituzke apur bat. % 22,94ko igoera du 2018ko ekitaldiarekin alderatuz. Hasierako kredituei dagokienez, hori funtsean partaidetza handiago baten ondorio da, edo Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtza areagotzearen ondorio. Ondoren baita Tokiko Erakundearen Finantzaketa-funtzaren likidazio positibo bat 2018koa, 57.000 euro ingurukoa, eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitea, Foru Aldundiak finantzatzeko duena. Aurrekontu horretan gizarte zerbitzuen eremuko zuzkidura areagotu egiten da itxarote-zerrendak murriztu, pertsonen arreta hobetu eta, era berean, udal bulegoetatik at lanketa bat burutzeko xedez, hots, udal bulegoetatik at gizarte zerbitzuen lana areagotzeko. Halaber, enplegu-planetarako partidak areagotu egiten dira, Guraso Elkarteari ematen zaion diru-laguntza berregituratu egiten da, 30.000 eurokoa dena gutxi gorabehera, non hobeto zehazten diren finantzatzeko doazen zerbitzuak, laguntzailearena bi urtekoa ere bai, kabinete psikopedagogikoa, goizetan haurtzaindegi-zerbitzua ere bai, ostegun arratsaldetan, eta urrian eta ekainean, eta eskolaz kanpoko jarduerak, Gurasoen Elkartetik egiten dituzten ikastaroak. Igoera bat dago Zaraobe institutuko Babio Guraso Elkartearen diru-laguntzan, 2018. urtean zegoenarekin alderatuz, eta ASASAM gaixotasun mentala duten pertsonen senideen Aiarako elkarte finantzatzeko partida bat ere badago. Orobat, Aiaraldea izeneko Aiarako hedabidea finantzatzeko partida bat ere gaineratzen da. Inbertsioei dagokienez, aipagarri dira Garai plazako jolas-eremuaren handitzea, kirol eremuko hesien berrikuntza, SR-1 sektoreko kaleetako zonaldean urbanizazio-lanen gauzatzea, Zaballa zonaldea, Otsati, Mendibeltz. Jauregian oinezkoen babesguneak hobetzea, farmaziaren aurrealdean, udaletxerako sarbidea hobetzea, bainuetan egindako eraberritzea, bigarren solairua egokitzea, Barratxiko bidearen



proiektua idaztea, San Roman eta Mendietako bideetan hobekuntza-lanak, udal igerilekuetan egindako berrikuntzak, eta Gordelizen instalatutako hoditeria.

Puntu horretan esan behar da igorri zen hasierako proiektuan kalistenia-parke baten instalazioa agertzen ez bazen ere, bada tira, egokitzat jotzen da 1000 euroko partida bat gaineratzea, kreditu orokorrarekin finantza daitekeena lasai asko, edo aurreko ekitaldietako soberakinekin, eta ildo nagusiak horiexek direla esan. Aurrekontua onartu zen, hiru batzorde egin dira, eta alegazioetarako epealdi bat egon da, eta partikularren zenbait ekarpen jaso genituen. Museoarekin lotuta asko jaso genituen, aurrekontuan museoaren aurrekontu-egitura Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin erdietsi den akordioaren inguruan islatzen da, kontuan izanik Udalak eraikinaren mantenua mantentzen duela, Artea elkartearen alde kultura jardueren ondoriozko ekarpena mantentzen duela, pintura-ikastaroa ere bai, hori jarduera ezberdina baita, Artea elkartetik berez burutzen diren jardueretatik apartekoa, eta era berean 1.000 euroko partida bat mantentzen da eguneroko irekieraren zerbitzuaren ekarpenean, dagoeneko egikaritzen hasi den bideragarritasun-planetik ateratzen denaren arabera. Bazen bestelako ekarpenik ere, esate baterako, Axpeko zabuen hobekuntza edo konponketa, eta hori ere aurrekontuan sartu da, eta tira, San Mateo azoka berreskuratzeko proposamenik ere egon da, eta beno, hori aurrekontuan ez da jaso, baina begiratu egin daiteke.

Eta horrekin ezer aipatu nahi baduzue...

Joseba Vivanco Retes: bai, aurrekontuaren aldeko botoaren gure justifikazioa. Irakurri egingo dut: "kontinuista den aurrekontu baten aurrean gaude, ez dugu soilik EH-Bildu alderdian uste hori, EAJ alderdiak ere aitortu du aurrez egindako eztabaidarako batzordeetan. Kontinuista bereziki inbertsio nagusienak 2018an dagoeneko aurrekontuan sartutako inbertsioak direlako, eta ez zirenak gauzatu. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren hasieraren esleipena, udal igerilekuak egokitzea, SR-1 sektorea hobetzeko lanak, uren hornidurarako sarearen zuntz-zementuzko hoditeria berritzea, eta gauza bera esan dezakegu kirol eremuko hesiak berritzeari dagokionez, edo Barratxiko zubiko bidearen proiektuaren esleipenarekin lotuta. Egia da zenbait kasutan burokraziak, edo neurtu ezin daitezkeen zenbait kontuk atzerapenak ekarri dituztela, eta egia da era berean beste zenbaitetan beste behin EAJ alderdiaren nagikeriaren ondorioz Artziniegako herriak urte bat galdu duela. Hau ez da gure aurrekontua, argi dago, baina aurrera atera dadin ere ez dugu eragotziko. Ez dugu aurrekontu horren aurkako botorik emango, baina harekin oso kritikoak izango gara. EH-Bildutik hasieratik helburu argi eta estrategiko batekin heldu genion aurrekontuaren inguruko eztabaidari, Etnografia museoaren funtzionamendurako 78.000 euroko partida aurrera atera behar zen derrigorrez, edo bestela gure botoa negatiboa izango zen. Gainerako gutzia bigarren maila batera pasako zen horrenbestez. Azkenean, eta ez Artziniegako EAJ alderdiari esker hain zuzen, museoaren berehalako etorkizuna birbideratu egin zen, bide batez, EAJ alderdiak urtebetez ukatu egin zuen kostu ekonomiko batekin, eta museoak bi hilabetez ixtera behartu zuen. Gertaera atsegin horietan guztietan, EAJ alderdiko jaun-andreok, historiak ez zaitu absolbituko. Oraingoz museoaren irekiera konponduta, EH-Bildu alderditik zenbait proposamen helarazten dizkiogu bere aurrekontu-proiektuari. Horrela, iritzien trukearen ondotik, atseginez esan dezakegu gaur osoko bilkura honetara ekartzen den aurrekontuak Barratxiko zubiko bidearen proiekturako partida bat barnera dezala, Santa Koloman Dehesako bidean mugarririk ipintze aldera, bi urtez geratuta egin baita, mahai gainean dirua jar dadila lortu dugula. Herriko espaloiak konpontzeko partida espezifiko bat barnera dadila, 1.500 eurotan areagotu dadila kultura jardunak diruz laguntzeko partida. Eta pozten gara baita, izan ere, boto horrekin EH-Bildu alderditik zilegitzen dugu eskualdean dagoen euskarazko hedabide bakarrak Artziniegako Udalaren eskutik dirua berriz jasotzea, iaz EAJ alderdiak baztertzea erabaki zuen diru hori. Gauza txiki horiek uzten dute norbera agerian. Baina zenbait gauza geratu dira, era berean, airean, EAJ alderdiak aurrekontuan sartzea zeharo ukatu dituen EH-Bildu alderdiaren proposamenak. 2.000.000 euroko aurrekontu batean 1.400 euro inguruko balioa zuten proposamen batzuk. Hutsaren hurrengoa, egia da, baina haur gure aurrekontua zergatik ez den erakusten dutenak. EAJ alderdiak ikasleko 20 euroko diru-laguntza ematea ukatu du Zeraobe Institutuan ikasketak egin behar dituen Artziniegako ikasleei zuzendua, eskolaz kanpoko jardueretara bideratutako dirua, bere garaian Institututuko Guraso Elkarteak eskatu zuen moduan,



eskualdeko gainerako Udalekin egiten den moduan. Partida 400 euroekin areagotu dezakegu, izan ere, EAJ alderdiak ez du ezetik esan. Aitzitik, kezka ikusten dugu nola txosten juridikoak kontratatzeko partida beste urtebetez neurritz gainera den. 2018an aurreikusitako 12.000 eurotik orain 15.000 euro proposatzen dira. Edo jaietarako partida areagotzen da, edo antzinako azokarako, edo Gabonetako programarako, edo 4.000 euro xahutzen ditugu argiztatu ez beste edozer egin dezakeen Gabonetako argitan. Baina ez dago dirurik gure ikasleentzat edo gure gazte jendearentzat. Bide batez, froga modura aurrekontu honi ezetz adierazteko botoi bat. Izan ere, zenbaki eta zifrez gain, euroen atzetik konpromisoak daude, eta hori kudeatzeko moduak. Antzinako azokarako 13.900 euroko partida bat bideratu zuten, aurrekontuaren egikaritzean ikusten dugunez 4.137 daude soberan. Jarduera turistikoak eta merkatuaren biziberritzea sustatzeko..."

Alkatea: barkatu, puntu horretan zuzenketa bat egin behar dizut. Hori zen aurrekontu osoaren aurreikuspena, gertatzen dena da Aldundiak finantzatuta zegoela Kuadrillaren bidez, eta kostuaren zati bat Kuadrillara joan zen zuzenean, baina kostua 12.000, 13.000 eurokoa izan zen.

Joseba Vivanco Retes: "Jarduera turistikoak eta merkatuaren biziberritzea sustatzeko 9.948 euro onartu ziren. Aurrekontuaren egikaritzearen arabera, ondoren eztabaidatuko duguna, 5.447 euro geratu dira soberan. Hobeto ez jarraitzea. Diru kontua ez da izango. Agian EH-Bilduk eskatzen duelako, bada oker daude, izan ere, Zeraobe Institutuko Gurasoen Elkarteak eskatzen du. EAJ alderdiak ere esan du ez 1.000 euroko partida ireki bat gaineratzeko kalistenia aparatua instalatzeko, muskulaturarako gimnasio moduko bat, eta Artziniegako gazte talde batek bere garaian eskatu zuena. EH-Bilduk, EAJ alderdiak erakutsitako ezaxolaren aurrean, erantzun ere ez baitzuen egin, eskaera hori aurrekontuetara eraman du, baina EAJ alderdiak muzin egiten dio aitzakia lauso eta demagogikoak azalduz. Artziniegako gazteekin sekula kezkatu ez baldin bada, zertarako kezkatu orain gobernuan hilabete pare bat baino geratzen ez zaionean? Haserretzen gaituena EAJ alderdiak ez egiteko ematen digun azalpena da, izan ere, gainera tuntuat hartzen gaituzte nonbait EH-Bildu alderdikoak eta baita gazteria bera ere. Ez dugu ontzat ematen. Hau da Alkateak gure eskaerari emandako erantzuna: *"batzordean esan genuen moduan prest gaude kalisteniaren instalazioa martxan jartzeko. Horretarako, proposamena egiten duen taldearekin beharrezkoak diren aurrera begirako pausoak eman behar ditugu kalistenia Artziniegako gazteriarentzat egiaz jarduera bat izan dadin. Kalistenia izan dadin udalerriko gazte askok egiten duten kirola. Horregatik haiekin elkartu beharrean gaude eta adinak, helburuak, ekipamenduen tipologia, lurzoru mota, estalia edo aire zabalekoa izatearen egokitasuna zehaztu eta, ondoren, kalistenia sustatzeko ekintzak garatzeko ere bai. Uste dut urratsak ematen goazen heinean proiektua garatuz eta aurrekontu-zuzkidura zehazten joan ahal garela. Ekimen ona da partaidetza-prozesua garatzeko."* Kapera Sixtinoa eraikitzea izango balitz ere, benetan. Gimnasiako aparatua ziztrin batzuk ipintzeko EAJ alderdiak arau subsidiarioak aldatzea proposatzen du ia. Eta gero *"ekimen ona partaidetza-prozesua garatzeko"* barrenera iritsi zaigu. Barrea eragiten du hau kontu serioa izango ez balitz. Pentsatzen dugu partaidetzarekin Antzinako azokaren etorkizunarena bezalako partaidetza-prozesu bat adierazi nahi duela, merkatua eta turismoa biziberritzeko politika batena, edo hiritarrei irekitako aurrekontuaren eztabaida bera. Bide batez, gazteria aipatzen duzue, sustatzea, haiekin hitz egitea... Gazte horiek aurkeztutako idatzia 2018ko ekainaren 18koa da. Eta gaurdaino erantzun ere ez zaie egin. Iaz EAJ eta PP alderdiek onartutako aurrekontuan 3.600 euroko partida bat gaineratzen zen gazteen jardueretarako. Aurrekontuaren egikaritzearen arabera 484 euro xahutu dira. Ez dugu beste ezer esateko.

Alkatea: beno, puntu honetan, azken puntuan esan nahi dizut, partidak oro har begiratzen baditugu, are hasierako kredituetan aurreikusitakoaren gainetiko gastua izan da gazteria arloan. Ez da berariaz agertzen partida horretan, baina Gaztelekua kudeatzeko zerbitzua garestitu egin zen, Aste Santuan zenbait jarduera egin dira, Gabonetan ere hainbat jarduera egin ziren. Gazteentzako atal espezifiko bat abiatu zen jolas txokoetan 12-16 urte bitarteko adinean, aurrera atera ez zena jendeak ez zuelako izenik eman. Eta partida espezifiko bat sortu zen bai, ez dakit zehazki zein den, baina partida espezifiko bat sortu zen Gaztelekutik gazteek antolatutako koadrila egunerako gastuetarako. Orduan, egia da partida horretan ez dela horrela agertzen, baina badira beste gastu batzuk. Babio Guraso Elkarteari dagokionez, esan nahi dizut joan den



urtearekin alderatuz partida areagotu egin dela, 600 eurotik 1.000 eurora. Oraindik aurtengo justifikazioaren zain gaude, 2018. urtekoaren zain, baina partida areagotu egin da. Eta kaliteniaren instalazioari dagokionez, noski kokapen onena zein den zehaztu behar da, egitura aire zabalean izan behar den, estalia izan behar den, are nik uste dut udalerrian begi onez ikus litezkeen beste kirol modalitate batzuk ere aintzatetsi beharko genituzkeela, esate baterako, crossfit delakoan, hori ere jarduera ona baita. Izan ere, azken batean inbertsioaren zenbatekoan, ez dakit zehazki zein izango den, baina jakina horrek itzulkin bat izan behar du. Ez gara soilik lau talde finkatzeaz hitz egiten ari, baizik eta gazte jendearentzako, beno neska-mutikoentzako, denbora libreko ekimen batez, eta tira, uste dut haiekin hitz egin eta horiek garatuz joan gaitzkeela, ez soilik proposamena egin duen talde honekin, baizik eta kirola ireki egin behar da, abiarazi egin behar da, jende gehiagok egin dezan kirola.

Joseba Vivanco Retes: pozten naiz lau urte beranduago, edo ez dakit zenbat urte beranduago, EAJ alderdiak argia ikusi duelako gazteei dagokienez, eta Artziniegako gazteekin kezkatzen hasi delako, herrian beti ahantzi egiten baititugu. Pentsatzen dut ez duela zerikusirik izango udal hauteskundeetatik bi hilabetera egotea, baina tira, pentsatzen dut anekdota bat izango dela. Eta baita esan nahi dut gazteria ez dela 16 urtera arte, edo 17 urtera arte. Gazteak dira baita 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24 edo 25 urtekoak... Artziniegako gazteria ez da soilik Gaztelekukoa, alboratu egin den gazte jende gehiago dago.

Alkatea: Gaztelekua 2017. urtetik dago martxan. Ikasketa gela dugu, beno, bada gauza txikiak dira...

Joseba Vivanco Retes: ikasketa gelaz ez hitz egitea espero dezagun, ezta?

Alkatea: beno ez dira azken hilabeteotan mugitu ditugun gauzak.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez. Ikasketa gelaz hitz egin nahi baldin baduzue, ikasketa gela zernola eskaintzen dugun jendea hara joan dadin ikastera, baldintzak betetzen ez direnean, berogailurik gabe, altzari egokirik gabe. Hots, Udalak duen edozein gelatan sartu eta hura eman ahal genieke. Gazte jendearentzat edo ikasleentzat, edo ikasi nahi duenarentzat ikasketa gela bat prestatu dugula esaten dugunean, hau gertatzen da ordea, barregura sartzen zaigu. Batzutan sentitzen dugu esaten dugula, beno, lau urte beranduago hauek hasiberri itxurarekin ikusten gaituzte. Ez dakit, argudioak horren lausoak eta demagogikoak dira, barregura emango luke kontua serioa izango ez balitz. Zuek zuen diskurtsoarekin eta...

Alkatea: berogailuarekin noizbait izan dugu kexaren bat, baina gainerakoan ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni askoz ere laburrago jardungo naiz. Egia esatera nire bozka aurkakoa izango da. Jakina arrazoietako bat, Josebak adierazi duen moduan, gure adostasuna ez duen hedabide bati aurrekontuan esleipen bat ematearena da. Baina hori bazter utzita, nik uste dut garrantzitsuagoak direla batzordeetako batean nik proposatutako zenbait gauza. Ulertzen dut inbertsioak egitean helburuak, premiak eta garrantzia ezberdinak direla alderdi politikoaren arabera. Nik Robirako espaloia indartzen amaitzea proposatu nuen, Sojogutiko espaloia indartzen amaitzea, Pañalbako pistan garrantzi bizikoa iruditzen zaidan pasabide kanadar bat, egin gabe geratu dena ipintzea pentsatzen den lekua pista pribatu bat delako, baina beherago jar zitekeen. Urtean 40.000 edo 50.000 eurotik gorako aurrekontu-konsignazio bat esleitzea basoko pistak konpontzeko. Hemen udalerrri turistiko bat nahi dugula aipatzen dugu behin eta berriz, udalerrri berde bat nahi dugula, eta une honetan gure udalerrian ditugun pisten artean bakar batetik igarotzea pentsaezina da. Horiek dira oro har Alderdi Popularrak egin nahi zituen inbertsio handiak. EAJ alderdiak bere kasuan beste batzuk zituen, eta oso ongi iruditzen zait hori ere, Barratagureneko espaloia, eta txorizotegitik Axpera bitarteko espaloia indartzea. Beno, bada hor helburu edo premia ezberdinak izan ditzakegu. Nik uste dut azken batean Udal honek gehienbat auzoak ahanzten dituela. Josebak gazteak dio, eta hori ere bai. Baina auzoetan eguneko 24 orduetan zer egin ez dakiten gazteak ditugu. Ez dute aisialdi une bat igarotzeko lekurik. Ezin gara baso pistetan barna ibili ez dugulako baso pistarik, ezin dugu soilik nekazaritzakoa den lan bat egin beste lan batzuk baztertuta, izan ere, ez dugu ezer eskaintzeko udalerrri honetara etor daitekeen inorentzat.

Nire bozka aurkakoa da era berean iaz EAJ alderdiarekin erdietsi nuen aurrekontu aldetiko akordioan nire ustez garrantzitsua eta ezinbestekoa zen proiektu bat zegoelako, bideen



inbentarioa, ondareen inbentarioa. Beno, bada espedientea abiatu ere ez da egin. Noski, EAJ alderdiak, Gobernuko taldeak 30.000 eurotik gorako espediente bat dela dio, eta horrenbestez delaldira atera behar dela...

Alkatea: 15.000.

Joseba Elejalde Ribacoba: 15.000. Azken batean lan handi bat da, edo bide horietatik atera behar da, eta ez da espediente abiatzeko denborarik izan, eta ez da pleguak prestatzeko denborarik izan. Gogoia izan balitz, uste dut hori bederatz hilabetetan idatzi eta lehiaketara atera zitekeela, eta une honetan, gaur, bideen inbentarioa errealitate bat izango litzateke eta ez promesa bat urte honetarako izango zela zin egin didaten moduan. Ez dakit aurten egikarituko den ala ez. Jakina Ekainen partidarena birpasatuko dugu berriro. 3 urtetan 8.300 eurotik 15.000 eurora pasa gara. Gauza batzuetarako Udal honetan ez dago dirurik, esate baterako, espaloiak konpontzeko, edo ura kanalizatzeko 3 urte darama konponketa batek, 1.500 edo 1.800 euro dena, baina enpresa bati 8.300 euro ordaintzetik 15.000 euro ordaintzera igarotzen gara lau urtetan. Beharrekoa? Gobernuko taldearen ikuspegitik beharrezkoa da. Udal honetako langileei lan asko kentzen die eta beno, aholkatu egiten gaitu. Beste kontu bat da ongi ala gaizki aholkatzen gaituen, izan ere goazen erritmoan, ikusten ari garenaren arabera, hau gero eta handiagoa egiten ari den pilota bat da, eta gero eta beharrezkoa izango zaigu haren zerbitzua. Eta beno, oro har horiek dira nire aurkako botoaren ildoak. Crossfita aipatu duzue, kalistenia, begira, 2018az geroztik dugu aipagai kalistenia, baina crossfita 2017. urtetik da mintzagai. Gazte talde batek hemen idatzi bat sartu zuen udal kiroldegia eskatuz 2017an, oker oroitzen ez badut, edo 2018. urtearen hasieran, eta horiei ere ez zaie erantzunik eman. Are gehiago, jende hori Artea kirol Elkartekoa da, makina guztiak, edo erositako makinetako zenbait gimnasioan ditu. Kontua da ezin dituztela martxan jarri ez dagoelako espazio fisikorik. Horregatik eskatu zen bere garaian kiroldegiko eremua. Ez zaie erantzunik eman eta mutikoei berriro eskatzeko gogo guztiak joan zaizkie.

Alkatea: barkatu, Joseba, erantzuna eman zitzaion, gertatzen dena da hor obra egin behar zela, hormara iltzatuta zihoazen, futbitoko taldearen erabilera dugu, Artzikirola eta...

Joseba Elejalde Ribacoba: Erantzun zaie? Orduan baztertu egiten dut eta ongi da. Niri esan zidaten azkeneko gauza ez zitzaiera erantzun da, baina tira, pertsona ugari dagoenez agian zuk hitz egin duzu... Baina azken batean esaten ari gara zenbait gauza mahai gainean uzten ditugula urte askoan. Azken batean proiektu asko ditugu hasita baina gauzatu gabe. Edo ideia asko mahai gainean, oso politikak direnak, baina azkenean aurrekonturik ez dagoelako ezin ditugunak gauzatu. Hots, aurrekontu bat, eta urte guztietan esandakoa esango dut berriro, % 93a langileetan xahutzen dugu eta pertsona irekitzean, gastu orokorrean, ezinezkoa da 2.200.000 eurotik % 7 batekin inbertsioetan, horrekin ezin duzu deus egin. Eta hori aldatzen ez den bitartean, iraultzen ez den bitartean, orain gertatzen zaiguna gertatuko zaigu, ditugun proiektu guztietan diru-laguntza gehigarri baten zain egon behar garela, erakunde publikoren batek emandakoa. Eta bitartean urteak pasako dira, udalerrri honek merezi dituen azpiegitura edo inbertsioak egiteko beharrezkoa den diru-laguntza horren zain.

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontran:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Onartuta geratu da.



3.- 2018. ekitaldiko laugarren hiruhilekoko aurrekontu-egikaritzearen berri ematea

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude. Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

4.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, idazkariak lagunduta, 54-75 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du, eta 55. dekretua ezeztatutik dago.

Alkatea: Zerbait galdetu nahi duzue?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

5.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Unai Gotxi Kastrexana: galdera bat, aurrekontuaren eztabaidaren aurretik zuntzementuzko hoditeriak aldatzeko obra aipatu dugu, noizko aurreikusten da?

Alkatea: bada, aurreko astean ireki ditugu A gutun-azalak. Irizpideen ebaluazioa egiten ari gara orain... dagoeneko balioespen subjektiboaren baitako irizpideen txostena esku artean dugu, mahaia elkartu behar da, puntuazio horren berri eman, eta ondoren eskaintza ekonomikoa ireki behar da. Eskaintza ekonomikoarekin mahaiaren akta egingo da, proiektuaren idazketa esleitzeko azken puntuazioa zehaztuz. Alegaziorik ez badago 15 egunetan sinatu beharko du kontratua, eta ondoren uste dut epea hiruzpalau hilabetekoa dela proiektua idazteko. Behin proiektua idatzita URA eta errepideen dagozkion baimenak behar diren baliozkotu behar da, Urari eta errepideei baimena eskatu behar zaie, baina edozein kasutan Foru Planera igorri behar da baliozkotze aldera. Eta gero baldintza administratiboen pleguak idatzi behar dira eta baldintza teknikoaren pleguak, eta hori proiektuan zehaztuko da, obra egikaritu ahal izateko.

Unai Gotxi Kastrexana: beraz 2020 edo 2021. urtera goaz.

Alkatea: ez, nik uste dut 2019. urtean egikaritzen has gaitzkeela.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, apuntatu egingo dut.

Alkatea: ikusten duzunez izapideak akigarriak dira.

Unai Gotxi Kastrexana: baina aspaldiko kontua da hau.

- Unai Gotxi Kastrexana: azken osoko saioan esan zenigunez, ez dakit azkenekoan edo azkenurrekoan izan zen, esan zenigun EALZ berriak 10 erabiltzaile hartzeko edukiera izango zuela. Hasieratik esan zitzaigun guri plazak areagotzeko Eguneko Arretarako Zentro berri bat egingo zela, jendea Arrespalditzara bidali behar ez izateko, eta itxarote-zerrendan jenderik ez egoteko. Orduan, azkenean nola geratzen da kontua?

Alkatea: bada Aldundia proiektua idazten ari da.

Unai Gotxi Kastrexana: baina zera esan nahi dut, plaza kopuru bera mantenduko da?

Alkatea: esaten ari natzaizu Aldundia proiektua idazten ari dela, sistema modular bat da, eskaeraren arabera areagotu daitekeen sistema bat da. Baina Aldundiaren proiektua esku artean izan arte itxaron dezagun ikusteko.



Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina zergatik esan zenigun azken osoko bilkuran plaza kopurua areagotu egingo zela ez baziren areagotu behar?

Alkatea: hasieran plaza kopurua areagotzea aurreikusten zen. Gertatzen dena da ondoren Aldundiak, azken elkarrizketetan, esan duela plaza kopurua mantentzearekin aski izango zela haien ustez.

Unai Gotxi Kastrexana: hots, lur berri bat okupatuko dugu alferrik.

Alkatea: ez, lur berri bat okupatuko dugu Eguneko Arretarako Landa Zentro berri bat izateko.

Unai Gotxi Kastrexana: baina plaza kopuru berdinarekin, jendea Arrespalditzara bidaliz eta jendea itxarote-zerrendan izanda.

Alkatea: oraintxe bertan ez dugu inor itxarote-zerrendan. Orain alderantziz gertatzen da. Aiarako pertsona bat dugu. Edozein modutan proiektua esku artean daukagunean ikusiko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: arraroa iruditzen zait ordea...

Alkatea: proiektu hori are, eskaera handiagoa baldin bada, areagotu egin daiteke.

Unai Gotxi Kastrexana: arraroa iruditzen zait ordea aipatzen didazuna, izan ere, espedientean Aldundiko arkitekto baten txosten bat dago, 15 erabiltzaile aurreikusten direla adieraziz. Eta orain esaten duzu plaza kopuru bera, 10 plaza, mantenduko dela.

Alkatea: beno, bada itxaron dezagun proiektua idatzita egon arte eta ikusiko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta gobernuko taldea kezkatuko al da plaza kopurua areagotu dadin borrokatzeko?

Alkatea: jakina.

Unai Gotxi Kastrexana: Bai?

Alkatea: jakina.

Unai Gotxi Kastrexana: apuntatu egingo dut.

Alkatea: apuntatu.

Unai Gotxi Kastrexana: bikain.

Joseba Elejalde Ribacobak osoko bilkura utzi du 09:40tan.

- Arkaitz San Jose Martinez: nik hiru kontu. Lehendabizikoa, ez da nire asmoa eztabaida bat hastea badakit ez dela egokia eta, aurrekoan eztabaidatu genuen, baina adierazi nahi dut jarraitzen dugula pentsatzen elikagaien bankuaren banaketarako kokapen berria oso praktikoa izan daitekeela, oso erdigunean egon daiteke, baina edozer gauza izan daiteke, baina diskretua ez. Eztabaidatu genuen ea hori jakin beharreko gauza bat zen ala ez, eta esan genuen zerbitzu bat dagoela jakin egin behar zela, eta jendeak zerbitzu horretatik probetxu ateratzen duela, baina ez da beharrezkoa jende hori nor den jakitea. Esan nahi dudana da, jasotzen duten pertsona guztiek, ni kasualitatez handik pasa nintzen banaketa egiten ari zirenean, eta jende asko begira geratzen da, eta berez zerbitzuaren onuradun diren pertsonen izenak hasi dira ahoz aho ibiltzen. Ildo horretatik errepikatu nahi dugu gure ustez ez dela lekurik onena halako zerbitzu bat emateko. Egia da erosotasuna eta abar lehenetsi behar dela, baina jendeak intimitaterako eskubidea izatea ere bai.

Inmaculada Vivanco Retes: aurreko osoko bilkuran esan nuena errepikatuko dut. Elikagaien bankuaren erabiltzaileen aldetik, gaur arte, nik dakidala, ez da inolako kexarik izan, ezta txikiena ere, eta esan diezazuket banaketarako loteak eratzen laguntzen aritu nintzela, eta ez dakit nor diren onuradunak, inondik ere. Agian bada jendeak beste zereginik ez eta esaten duela "gaur banaketa eguna da eta goiko kaletik osteratxo bat emango du, lehen Artetik igarotzen nintzen arren". Agian bai. Nik esan diezazuket loteak egiten aritu nintzela, nire denbora horretan ipin iz eta lanean, izan ere, badu bere lana eta ez dakit nor diren elikagaien bankuaren onuradunak.

Arkaitz San Jose Martínez: baina ez naiz zutaz ari.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, baina esaten dizut, ikuspuntu kontua dela, eta bakoitzak gaiaren inguruan ipintzen duenaren arabera.

Arkaitz San Jose Martinez: argi dago.

Inmaculada Vivanco Retes: eta berriro diotsut, gaur egun, elikagaien bankuko erabiltzaileen aldetik, inork ez, aitzitik, uste dut gusturago daudela ez dutelako Arteraino joan behar elikagaiak jasotzera.



Arkaitz San Jose Martinez: Zergatik, han egiten al zen lehen?

Inmaculada Vivanco Retes: baietz, ados nago zurekin, lehen unean aukeratu zen puntua hura zen apur bat. Baina guztiak egiten du aurrera, eta guztia aztertzen da, eta guztia hobetzen da.

Arkaitz San Jose Martinez: eta borondate ona egongo balitz ez litzateke arazorik egongo, baina ni, hain zuzen inguruabar horietan pertsona bat topatu nuen eta zera esaten zidan "jo, begira, Kaiku esnea ere ematen diete!"

Inmaculada Vivanco Retes: Eta zergatik ezin diezaiekete Kaiku esnea eman? Zein leihotik begira zauden, hori da kontua.

Arkaitz San Jose Martinez: noski.

Inmaculada Vivanco Retes: Eta zergatik ezin zaie Kaiku esnerik eman, Kaikuk soberan izan badu? Zergatik eman behar diete...?

Arkaitz San Jose Martinez: ni hori esaten ari naizela esaten ari zara. Baina bada jende bat alerta maila horretan dagoela, eta irizmenik ez dagoenean halako gauzak gertatzen dira.

Inmaculada Vivanco Retes: esan berri dudana berresten ari zara. Agian egongo dela jendea horren zain, egutegian apuntatuta izango duena, aizu gaur eguna da, gaur banaketa eguna da, goazen Goienkalera pasioan. Bada horrela ikusten baldin baduzu.

Alkatea: nik gogoan dut erabiltzaileen aldetik egon zirela kexuak adieraziz Artea apur bat urrun geratzen zitzaiela.

Arkaitz San Jose Martinez: ados nago. Nik ere esan dut hori, lekua onesten dugula gertutasunagatik.

Alkatea: urrun samar geratzen zitzaiela eta, beno, autoa baldin bazuten igo egiten ziren, baina autorik ez bazuten, oinez igo behar ziren, ondoren jaitsi, eta alukeria zen. Orduan ez dakit, erabiltzaileen aldetik ez da kexarik izan espazioaren inguruan. Gainera espazioak aukera ematen dizu, bada hozkailu bat, beraz jogurten eta halakoen kasuan ez da hotzaren katea hausten, eta hobeto da. Baina esaten ari zaren ñabardura horiek goran ere, Artean, baziren.

Alazne Lafragua Ureta: Artean hainbat urtez egin izan da, eta nik sekula ez dut entzun nor joaten zen, ezta nor...

Inmaculada Vivanco Retes: bada orain arreta gehiago ipini duzula izango da.

Alazne Lafragua Ureta: ez, ez, inondik ere ez.

Inmaculada Vivanco Retes: bada orain lehen arreta gehiago ipini duzula izango da.

Alazne Lafragua Ureta: ez, ez, inondik ere ez.

Inmaculada Vivanco Retes: nik diotsut.

Alazne Lafragua Ureta: ez, izan ere, informazio hori nik galdetu gabe iritsi zait.

Inmaculada Vivanco Retes: esan dizunari arreta gehiago ipini diozulako izango da.

Alazne Lafragua Ureta: ezetz, ez dudala galdetu Inma.

Inmaculada Vivanco Retes: ezetz, lehen baino arreta gehiago ipini duzula izango dela.

Alazne Lafragua Ureta: edozein kasutan, niri ongi iruditzen zait gerturatu izana. Agian hori ez da lekurik onena. Eta ados gaude Kaiku esnea eta behar dena eman behar dela, horretan ez dago inolako arazorik. Gaiarekin sortzen den ñabardurak dira.

Inmaculada Vivanco Retes: nahi duenak sinets beza esango dut, besterik gabe.

Alkatea: beno, Artean zegoenean halako aipuak ere iritsi zaizkigu.

- Arkaitz San Jose Martinez: beno, besterik gabe, beste kontu bat, gazteen arteko droga kontsumoaren inguruko hitzaldiari eta helduen arteko kontsumoaren inguruan dagoen beste bati buruzko galdera bat da, eta duela gutxi gazteei zuzendua izan zen. Eta galdera zen ea nondik ateratzen den proposamen hori, zein den helburua, zein den egiten den balioespena, eta egin eta besterik gabe horretan uzten diren ekintzat hartzen ote diren. Uste dugu, aztertu dugu eta pentsatzen dugu, agian, hitzaldi horiekin lortu nahi den helburuaren arabera, agian egokiagoa ote den ala ez Ertzaintzako kide batek, behar bezala informatuta dagoen batek, ematea hitzaldia. Horregatik, helburua jakin nahi dugu apur bat. Izan ere, guri bide egokiagoa iruditzen zaigu jaietan egiten den, testingaren eta abarraren gaia, beste ikuspegi batetik, droga kontsumoak zer suposatzen duen ikusaraziz hezi, gazte jendearengan ohikoa dela jakintzat ematea, eta arriskuak gutxiagotzen saiatzea, eta kontsumoa murrizteko ere heziketa ematea. Ez dakit horri dagokionez zigorrak ipini eta jazarpena egiteaz arduratzen diren pertsonak, batez ere trafikoari dagokionez,



baina baita kontsumoari dagokionez, egokienak ote diren gazte jendearekin lan pedagogiko hori egiteko.

Alkatea: bada guri oso positiboa iruditzen zaigu. Hau Ertzaintzarekiko lankidetza-esparruaren barnean sartzen da, Ertzaintza ez du soilik trafikoa erregulatzen, gauza gehiago egiten ditu. Eta ez da Ertzaintzak halako hitzaldi bat ematen duen lehen aldia. Hitzaldiak eman ditu pertsona helduekin eta baita gazteekin ere, sareko arriskuak, mugikorren erabileren inguruan eta abar. Hitzaldi hori ez da esperientzia pilotu bat hemen Artziniegan, beste udalerrri batzuetan ere eman da, eta prebentziora bideratuta horiek ere eta gazteenek arriskuak ezagut ditzaten, Ertzaintzaren esperientziaren ikuspegitik, esperientzia du eta, horrela neurriak hartu ahal ditzaten. Balioespen bat? Ikusiko dugu helduen hitzaldia nola garatzen den gaur, baina joan den ostiraleko hitzaldian egiaz gazte ugari izan ziren, eta guri esan digutenez jendea pozik egon zen.

Arkaitz San Jose Martinez: ongi da, uneko ñabardura bat baino ez zen. Nik gazteekin egiten dut lan, uste dut ez dela ikuspuntu bakarra, ez dut zalantzan ipintzen Ertzaintzak betetzen duen rola gaiaren inguruan. Haiek zigortu eta jazartzearen arduradun dira. Agian hori da izan behar den ikuspuntu bakarra.

Alkatea: ez, ez.

Arkaitz San Jose Martinez: eskoletan bertan beste era batera egiten da lan. Berez, irakasleok ere ez gara egoten sexuari eta halakoei buruzko hitzaldiak ematen direnean, aretoan ere ez gara egoten. Esaten ari ginen gauza beragatik, pribatutasunarekin lotutako alderdi bat dagoelako, eta ez dakit pedagogikoki onena ote den daukaten erreferentzia bakarra, beno bakarra ez, izan ere, gero beste batzuk sortzen baitira gazteen arteko sareen bidez, baina helduen ikuspuntutik polizia autonomikoarena izatea den.

Alkatea: beno, bai, egon daitezke beste batzuk, baina Ertzaintzarena garrantzitsua da.

Inmaculada Vivanco Retes: itxarote-zerrendak dituzten Udaletan hitzaldiak emateko.

Arkaitz San Jose Martinez: droga kontsumoa oraindik ere handia da ordea, ez dakit eraginkorra ote den.

Alkatea: tira, ez dakit gaizki ulertu ez ote dizudan, ez alderatu Ertzaintza trafikatzailerekin.

Arkaitz San Jose Martinez: ez, ez, esaten dudana da gauza batek eskari asko izango duela, baina besteak ere bai.

Alkatea: Agian.

- Arkaitz San Jose Martinez: ez dakit azken osoko bilkura den ala ez.

Alkatea: beste bat izango dugu aktak onartzeko, gutxienez.

Inmaculada Vivanco Retes: maiatza geratzen da.

Arkaitz San Jose Martinez: besterik gabe, askotan errepikatu dudana gai bat eta denbora dagoenez eta beste osoko bilkura bat izango denez, bada... beno, lehen osoko bilkura osararena izan zen, bigarrena ezohikoa izan zen eta Udalsarea eta Agenda 21 izan ziren mintzagai. Guk orduko hartan Udalsareko parte izatearen aurkako botoa eman genuen, ez Udalsareako kide izateagatik baizik eta azkarregi zela uste genuelako, uste genuen lehendabizi Agenda 21 eta herritarren partaidetzaren alde gauza eraginkorrak egiteko saiakera egin behar zela, eta tira, ez zegoela presarik, gauzak egitea zela egin behar zena. Duela jadanik 4 urte lehen urrats bat zela erantzun zitzaigun, eta hasteko modu bat zela, Agenda 21 plana han zegoelako, onartuta baitago, eta balioespen bat gustatuko litzaidake, Udalsarearen bilkuretan parte hartu ote den, eta beste udalerrri batzuetan esperientzia positiboak ikusi ote diren eta Agenda 21 delakoaren gaia zertan geratzen den apur bat.

Alkatea: ongi baderitsozu, hurrengo osoko bilkuran begiratuko dut.

Arkaitz San Jose Martinez: ados.

Joseba Vivanco Retes: nik banituen pare bat kontu. Batak Alkatetzaren dekretu batekin du zerikusia, Agustindar mojak alokatuta dituzte pisu batzuegatik OHZ zerga ordaintzetik salbuestekoa. Ez naiz hasiko hori zer iruditzen zaidan esaten, Aita Sainduak esan zuen aurreko egunean, beraz ez diot nik arrazoia kenduko Aita Sainduari, elizak ordaindu egin beharko zukeela halako alokairu edo eraikinengatik. Arreta ematen dit Aldundiak bere garaian esan izana erlijiozale horiek OHZ zerga ordaindu behar zutela, eta orain guk ezetz esaten dugu, baina tira,



ez dut horretan sartu nahi ezta, baizik eta Udal modura eska diezaiogula Ekaini, aholkularitza juridikoaren gastua neurritz gainekoa dela esaten ari gara, dagoeneko 15.000 eurotara pasaz, aurtengo urte honetan, zenbateko horretara igaroko baikara, eta kontua da txostenak ditugula esku artean, Ekaini, enpresa horri, eskatuz, txosten bat erlijiozale horiek alokatutako pisu batzuen ondoriozko OHZ zergatik salbuetsita dauden ala ez ikusteko. Nik uste dut hori apur bat gehiegizkoa dela. Josebak beti esaten du, aipatzen du Aldundiak Udalak artatzeko zerbitzu juridiko bat duela, ados gaude badela unean uneko zerbitzu juridiko bat unean uneko kontuak artatzeko, eta horri ez diozu agindu behar ez dakit zein plan, baita tira, nik uste dut halako txostenak, Aldundia ez baldin badugu, edo halako txostenak, txosten juridikorik ez badago jadanik horri buruzkorik, ez dut uste Artziniegako Udala plan pilotu bat denik esanez halako eraikin edo higiezinak OHZ zergatik salbuetsita daudela, txosten juridiko bat enkargatzeko premiarekin eta batzen jarraitzeko, txosten juridikoetan egiten den gastua gizentzen jarraitzeko. Izan ere, ez dakit azkenean txosten juridiko hori zenbat kostatuko zen, agian erlijiozale horiek eraikin horien ondoriozko OHZ zergagatik ordaindu behar zutena baino gehiago kostatu zaigu. Orduan, ez dut horretan sartu nahi, eztabaidatzekoa izango baitzen ordaindu behar duten ala ez, hura nola dagoen, guztiok dakigun guztia, baina Udalera iristen da eta egia esan zurriz bat dirudi honek, eta gero diru bat kostatzen zaigun txosten juridiko bat aginduz gainera. Txosten juridikoaren gaia egiaz ez dut ulertzen, ez dago nondik heldu.

Alkatea: beno, gai horretan nolabaiteko eztabaida juridikoa dago hala izan behar duen ala ez erabakitzeko. Horregatik eskatu zen txosten juridikoa. Gainera nik uste nuen txostenean ordaindu egin behar zutela adieraziko zela, eta nire harridurarako txostenean ezetz aipatzen da.

Joseba Vivanco Retes: pentsatzen dut gai horrekin nahikoa legeria eta jurisprudentzia egongo dela, eta are, Aldundia bera izan beharko litzateke, nire ustez, kasu honetan Udalak aholkatu beharko litzuzkeena eta esan, bada begira, legearen arabera, salbuetsita zaude edo ez zaude salbuetsita. Baina guk, Udal modura, dirua ipini behar izatea kanpoko txosten juridiko bat agintzeko, gainera esateko ez duela ordaindu behar, eta horren ondorioz kobratzeari uzten diogu, eta txostena ordaintzen dugu. Bada ez dakit, ez zait logikoa iruditzen, inolaz ere.

- Joseba Vivanco Retes: beste gai batek Arartekoak egunotan igorritako eskakizunarekin du zerikusia, eta azkenik berdinetan gaude. Ez naiz hasiko arrazoia duen ala ez esaten, Udalarik informazioa eskatzen zaion pertsonari erantzunik eman ez bazaio, ez bazaio informazio hori eman, eta orduan Arartekora jo badu informazio hori eska dezan. Esan nahi dudana da ezin dugula izan Arartekoaren moduko erakunde bat, informazioa eskatzen aritu behar zaiguna. Urtarrilen informazio-eskaera bat igortzen digute, eta berriro informazio-eskaera igortzen digute ez diogulako erantzun. Gero diogu gazte jendeari ez zaiola erantzuten, ez zaiola erantzunik ematen ez dakit zeri, baina Arartekoari ere ez zaiola erantzuten ordea. Nik uste dut zor digutela...

Alkatea: erantzuna prestatu behar dugu. Barratagureneko teilatua eta Mendietako San Tomas eliza konpontzeko neurriak har ditzagula eskatu duen pertsonari buruz ari zara.

Joseba Vivanco Retes: bai, nik ez nuen gaian sartu nahi, baina horixe da bai.

Alkatea: bietako bat bera ere ez da gurea.

Joseba Vivanco Retes: ados. Baina, begira zer kostatzen den Arartekoari, urtarrilaren 16an Udalera informazio-eskaera igortzen baitu, eta gutun bat bidaltzea esanez "bai, hau ez da gurea". Ez, itxaron behar dugu Arartekoak berriro beste gutun bat bidali arte esanez "Artziniegako Udaleko jaun-andreok, ez diguzue erantzuten". Bada pentsatzen dut ondoren urtero kasuen eta Udalen gainean egiten duen balantzea egiten duenean eta erantzunen estatistika guztiak ateratzen dituzenean, bada tira, ziur Artziniegaren izena azkar erantzuten dutenen artean izango dela. Orduan ez diot gaiari helduko, eta ados egon naiteke elementu horiek gureak ez direla diotuzenean, eta agian ez da gure arazoa, ez dakit, baina tira, zer gutxiago Arartekoari modu onez eta, batez ere, garaiz erantzutea baino.

Joseba Vivanco Retes: eta gero galdetu nahi nizun, hilabete inguru pasa da azken osoko bilkuratik, eta orduan galdetu nahi dut ea espazio publikoak erabiltzeko ordenantzan espazio publikoetan kartelak eranstea debekatzen duen atala bilatu ote duzun.

Alkatea: esan nizun ez dela ordenantza bakar batean ere jasotzen.

Joseba Vivanco Retes: bada orduan ez dakit zergatik erauzi zen kartel hura.



Alkatea: hemen, udaletxean, bezalaxe, jartzen diren bezalaxe kendu ere egiten dira. Berdin-berdin.

Joseba Vivanco Retes: ados, oker ez banago joan den hilean osoko bilkura martxoaren 8a eta hurrengo egunean izan genuen. Udalak onartutako elkarretaratzea. Zu elkarretaratze horretan. Elkarretaratzea amaitu eta pertsona talde batek udal pilotalekua kartekez betetzen du. Aurreko egunean osoko bilkuran galdetu nizun, "udal pilotalekuan ere ezin dira kartelak erantsi?" Eta esan zenuen "ezta ere". Beno, bada zu han zeunden, eta ez zintudan kartel bakar bat kentzen ikusi, are gehiago hurrengo egunean han jarraitzen zuten, hurrengo egunean han jarraitzen zuten.

Alkatea: hori udalaz aparteko jarduera bat zen, baina Udalak parte hartzen zuen.

Joseba Vivanco Retes: ah, Udalak parte hartzen duenean egin daiteke...?

Alkatea: ez konparatu. Martxoaren 8a zen.

Joseba Vivanco Retes: Begira, bikain, baina alde egin duen gizonak, Josebak, halako jardunen aurkako botoa eman zuen. Eskubide osoa du zuri esateko kartel horiek hurrengo minutuan bertan kentzeko. Eskubide osoa. Zuk kartelak kentzen badituzu gogoak ematen dizun lekutik gogoan ematen dizulako, kartel horiek, Alderdi Popularra ez zegoen ados osoko bilkura hartan onartu zenarekin, ez zegoen ados elkarretaratze horrekin, beraz, bikaina, orain ez dago, baina esan ziezazukeen "kendu hori guztiori hortik". Hots, Udalak erantsi egin ditzakeen hori...

Alkatea: ez, ez, Udal gehiengoak ez. Osoko bilkuran onartu zen.

Joseba Vivanco Retes: ez lñigo, ez saiatu bereizten.

Alkatea: nik uste dut ezberdina dela, baina tira.

Joseba Vivanco Retes: Barkatu?

Alkatea: nik uste dut ezberdina dela.

Joseba Vivanco Retes: Udalak egin dezake gogoak ematen diolako? Zerk ahalbidetzen dio? Zuk kartelak kentzeko lege berak? Txirrindularitza lasterketa izan dugu. Hiru egun aurretik Barrenkale gutxienez hormetan eta edozein tokitan bandoz josita egon da. Ez karteletan edo paneletan. Edozein lekutan. Nik ez dut Udaleko inor ikusi kartel horiek kentzera joaten hormetan erantsita zeudelako. Ez, ez, ezta beno eta ez ezer. Zure lege horrek ez du balio batzuentzako bai eta beste batzuentzako ez.

Alkatea: beno, bada, kendu egin beharko dira...

Joseba Vivanco Retes: ez beno eta ez ezer, zure lege horrek ez du balio batzuentzako bai eta beste batzuentzako ez.

Alkatea: kendu egin beharko dira, izan ere, gaizki dago, jarduera bat baldin badago, jarduera horren ondotik kartelak erantsita jarraitzen baldin badute. Hori aitortzen dut gaizki dagoela.

Joseba Vivanco Retes: aizu, zuk kartela kendu zenuen eta jarduera ez zen pasa.

Alkatea: esan nizun zergatik kendu nuen.

Joseba Vivanco Retes: ez zenidan esan zergatik.

Alkatea: bai, bai, esan nizun zergatik. Esan nizun alderdi politikook eredugarri izan behar garela, eta lokaletan, hemen behean udaletxean ipintzen ez duzuen moduan, bada udal igerilekuen barrutik ere ez ipintzeko. Baina beno, batentzako gauza batek balio du, gero ez...

Joseba Vivanco Retes: ikusten dugu zurearekin nahieran jokatzeko duzula, baina ondoren hara, aurrera jo eta...

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen Saioa, lehenago aipatuegunaren hamarretan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.